

# ortzadar

larunbata, 2014ko martxoaren 1a. 345 zenbakia

deia.com

**euskal kulturaren kolore guztiak**

## IRATXE LÓPEZ DE MUNAIN

“Hizkuntza egokia erabiliz, gai guztiak landu daitezke haurrekin”, dio ilustratzaileak

-- 4-5. orrialdeak --

## HAIZEAK ERAMAN EZ ZUENAZ

Ahozko literatura-altxor baliotsuarekin antologia taxutu du Xabi Payak

-- 7. orrialdea --



 UXUE RAZKIN

**H**ILABETEAk pasa dira *Konpota* ikuskizuna abian jarri zenetik. Philippe Gaulier autore frantsesaren testu bat oinarri, euskarazko bertsioa sortu dute. Umore beltza osagarri duen obra honetan, emakume bufoi batentzat idatzitako bakarrizketa izango du ikusgai publikoak. Irribarreari ere tartea luzatzen dio *Konpotak*: “Ikusleari begira egiten dut bakarrizketa osoa, zuzenean hitz egiten diot. Orduan ikusten ditut aurpegiak eta une askotan irribarre konplizeak sumatzen ditut”, dio Eneritz Artetxe aktore protagonistak.

Antzezleak azaltzen duenez, berezitasunez josia dago obra. “Erabiltzen dugun tonua ez da oso ohikoa, batez ere emakume batengan. Ironia lantzen du, sakoneko gauzak esaten ditu pertsonaiak...”. Eszenaratze berezia ere badaukala gaineratzen du. Esaterako, oholtzan agertzen diren elementuak eta erabiltzeko modua ez dira arruntak: “Mundu sinboliko batera eramaten gaitu obrak”.

*Konpotak* publiko guztiari iristea du bertute. Artetxeren esanetan, “autoreak mezu asko bidaltzen ditu”. Hori dela eta, aktoreak dio norberak bere bizipen arabera ulertzen dituela istorioak, eta bakoitzari mezu hori modu batean heltzen zaiola, izan azaleko mezua, mitoaren istorioa, egunerokotasuna... “Geruza asko dituen obra da, eta ikusleengan interesa sortzen du”.

Zenbait ikuskizun egin dituzte jada eta publikoaren aldetik oso harrera ona izan dutela dio Artetxek. “Nik erantzun bi desberdintzen ditut nire barruan; alde batetik, zuzeneko harrera, aurpegiak ikusten dituzunean eta beste aldetik, emanaldiaren ondotik esaten dutena. Aurpegi horiek ikusten ditut, jendea butaketan *itsatsita* geratzen da, eta begiak zabal-zabalik”.

Irribarre egiten dutenean konplizitate maila sortzen dela azaltzen du: “Hori da ikuslerian nabari dudana iritzia. Gero komentario hori oso interesgarria iruditzen zaio jendeari. Kritika aldetik ere oso positiboak izan dira orain arte”.

Urtebetez egindako lanarekin pozik dago ere bai: “Kanpotik jarritako zailtasunik ez dugu eduki. Zubiko partaideen laguntza izan dugu. Taldean elkarlana eta konplizitatea izan ditugu. Dena izan da babesa eta giro ona”, eskertu du.

**KLIXE EZKORRAK** Nolanahi ere, euskaraz aritzearen betiko estereotipo ezkorra gogora ekarri ditu aktoreak. “Euskaraz egitearena aukera

# Geruza askotako ikuskizuna

“Mundu sinboliko batera garamatza obrak”, dio **Eneritz Artetxe** ‘*Konpota*’ bakarrizketaren protagonistak. Euskal jendaurrearen aldetik urtebeteko ‘uzta’ ona jasota, Suitzara ‘esportatzea’ proposatu zaio



 Publikoaren harrerari dagokionez, “irribarre konplizeak” aintzat hartzen ditu Artetxek. JOSEBA BARRENETXEA

bat da eta berezitasunak ditu. Euskal antzerkiaren inguruan mito faltsu asko daude: *Jendea ez da euskarazko obra bat ikustera etorriko* edo *euskal antzerkia ez da puntakoa* gisako tontakeriak entzuten dira”. Une honetan, antzerkia, oro har, “oso punteroa” dela dio, gauza “oso interesgarriak” egiten ari baitira bere ustetan: “Apuatu bat da. Urte askotan egon ginen gaztelarazko obrak itzultzen eta beharra dago jatorriz euskarazko antzerkia egiteko. Hau itzuli dugu frantsesetik, obra potentea delako”, argitu du. Euskarazko obrak izatea aberasgarria dela eta antzezleentzat lan tresnak direla gaineratzen du: “*Hamlet, Macbeth...* nahiago nituzke horiek itzulita izan. Aberasgarria da sormena eta funtsa euskaraz izatea, bestela bigarren maila batean gaude beti”.

**MUSIKALITATEA** Bestalde, “badago *Konpota* ikustera etorri den jendea euskaraz ez dakiena eta beste modu batean disfrutatzen du”, aipatzen du Artetxek. “Dena ulertzera eta dena hitzen mundutik egitera ohituta gaude. Hizkuntza bakoitzak badauka bere musikalitatea eta nahiz eta hizkuntza bera ez ulertu, musikalitate horrekin beste gauza batzuk uler daitezke. Horretara ohitu behar gara”, baieztatzen du. Oraindik ere ezer antolatuta badago ere, obra atzerrira eramatea pentsatu du Artetxek: “Suitzatan dudana lagun batek animatzen nau. Izan ere, han ohituta gaude azpitu-luekin, eta euskararekiko badute jakin-mina eta entzun nahi dute zer den hizkuntza hori”.



#### DATOZEN EMANALDIK

##### Martxo:

- 7an, Lekeitioko Ikusgarri aretoan, 20.00etan.
- 8an, Astigarragan.
- 9an, Kanboko (AIEC) gelan. 18.00etan.
- 23an, Gazteizko Baratza aretoan. 19.00etan.
- 29an Markinako Uhagon kulturean. 19.30ean.

##### Apirila:

- 23an, Aulestiako Udal aretoan. 21.00etan.

##### Maiatza:

- 4an, Azkoitiko Matadero aretoan. 19.00etan.
- 9an, Galdakaoko Torrezabal Aretoan. 21.00etan.

## KRITIKA

## Hain kartsuki

TITULUA: 'ESTELLÉS EUSKARAZ'

EGILEA: VICENT ANDRÉS ESTELLÉS

ARGIALETXEA: BOSTEZO



ARITZ GALARRAGA



**B**ATEN batek irri ere egingo dit, baina boladatxoa hartu du euskarari ekarritako poesia unibertsalak. Batetik daukagu Denonartean argialetxearen ekinaldia; oso tar-te laburrean ateratzen baititu, edizio txukun-eskurgarriari, gainera, Fernando Pessoa, Miquel Martí i Pol, Lois Pereiro eta Sylvia Plath. Bestetik daukagu *Munduko Poesia Kaierak*, azkenaldian gure literaturgintzak eman duen berrikeria onenetako bat; oraintxe kaleratu du Georg Trakl, Maria Mercè Marçal eta Aimé Césaire. Eta gero daukagu sarea, ze inbentioa. Euskaratzen dituzu sei poema soilik eta deitzen ahal dizute hedabideetatik.

Boladatxo horretan koka dezakegu, baina gauza arraroxeagoa da, *Estellés euskaraz*. Arraroxeagoa, Paco Inclanek argitaratu baitu *Bostezo* izeneko aldizkari-argialetxe valentziarrean, eta Héctor Arnaurena baita poemen aukeraketa. Lasai ez baduzue izen horietako bakar bat ere ezagutzen; nik ere ez nuen, liburu hau eskuartearen izan arte. Ezagutzen nituen gauza bakarrak ziren itzultzailea, noski, eta apur batean poeta. Markuleta-Estellés konexioak aurretik funtzionatu duelako, adi-

bidez, Literatura unibertsaleko bilduman kaleratu zen *Zenbait poeta katalan* poesia katalanaren antologia hartan, 1997 urrundean —aurki berrargitaratu da hori ere, boladatxoaren beste adierazgarri bat—. *Senez* aldizkariaren 30. zenbakiak, bestalde, zabaldu zuen puska batean valentziarren korpusa, 2006an. Eta orain hau, *Bostezoko* lagunen zorakeria maitagarri hau. Tira, literaturak tarteka ematen dizu halako sorpresa ezusteko-atseginik. Dena ez da izango negar eragilea.

Vicent Andrés Estellés, beraz, Valentziako Burjassoteko semea, literatura periferiko baten periferiako idazlea, marjinaren marjinakoa, behin ez bitan paradisetik kanporatua. Pare bat topikorekin laburbiltzearren, Valentziako poesia garaikidearen berritzaile nagusia eta Valentziak Ausiàs Marchen garaitik eman duen poetarik onena —eta euria bota du harrezkerotetik, alajainkoa—. Aurretik gurean genuenarekiko, zer aurkituko du hemen irakurleak? Bada, hasteko, poema euskaraz *ineditoak*, ia guzti-guztiak. Material berri-freskoa, hartara. Eta, poetaren obraren baitan, ez hain kanonikoa. Gehiago jo da bere garaian argitaragabe geratu ziren

hasierako lan haietara; eta ez hainbeste geroagoko produktiora, antologiak hitzaurrean diogen bezala, “ez hain zorrotza”, baina bai, aldiz, “bihotz-altxagarriagoa eta atsegin-emaileagoa”. Hain birtzikizki gizatiarra sexuaren xehetasun zehatzetan —“Zuztarreraino zuputzen zenidan”, “Zuk ez zenuen atzetik nahi”, “Bularrak haztatu zituen geldiro”—. Hain biziki goiztiarra heriotzaren zorrotzaren aurreko umore beltzean —“Banan-banan altxatu ziren hildakoak”, “Hila hilkutxaren barruan zen”, “Etorriko da Herio, eta ni ez naiz ohean egongo”—. Hain kartsuki eraginkorra horietan eta gehiagotan.

Plazera da, bestela, antologia elebiduna izatea. Aukera ematen baitu, hartara, batetik bestera saltoka ibiltzeko, ez dena beti gertatzen itzulpenetan, batez ere narratibakoak direnean. Hala, hobeki prezia dezakegu Gerardo Markuletaren jardun ona, katalanetik euskarari aritzen den itzultzailearen artean puntakoena dela berretsiz. Edizio arraroxe bat, finean, zehatz nondik-nora-nola erori den ez dakiguna, baina euskarari ekarritako poesia unibertsalaren boladatxoaren baitan, gurean geratzeko asmoz ailegatu dena.

**Boladatxoa hartu du euskarari ekarritako poesia unibertsalak (...); orain 'Bostezo'ko lagunen zorakeria maitagarri hau. Tira, dena ez da izango negar eragilea**

## SALDUENAK

## Fikzioa

## 1. Nevadako egunak

Bernardo Atxaga. Pamiela.

## 2. Hnuy Illa Nyha Maja...

Joseba Sarrionandia. Elkar.

## 3. Hobe isilik

Garbiñe Ubeda. Elkar.

## 4. Esan eta egin

Alex Sardui. Baga Biga produkzioak.

## 5. Heriotzaren ataria dugu bizitza

Joxean Artze. Elkar.

## 6. Zaindari ikusezina

Dolores Redondo. Erein.

## Ez Fikzioa

## 1. Hitzunpolisa

Jon Sarasua. Pamiela.

## 2. Gasteizko historia inoiz kontatu ez den bezala

J. Saenz de Tejada/E. Inclan. Más que rutas.

## 3. Nafarroa, euskal estatu...

Aitor Pescador/Bixente Serrano. Labrit.

## 4. Lauaxeta/Lizardi/Lete

Anjel Lertxundi/Antton Valverde. Pamiela.

## 5. Euskal Herriaren historia laburra

Iñaki Egaña. Txertoa/Abarka.

## 6. Kaliforniakoak (1533-1848)

Asun Garikano. Pamiela.

## ERAKUSLEIHOA

## SAIAKERA

## 'Txalorik ez, arren'

Harkaitz Cano. Edo. 72 orr. 8,32 euro.



## ALDIZKARIA

## 'Jakín (200. alea)'

Hainbat autore. Jakín Taldea. 14 euro.



## HAUR LITERATURA

## 'Lucius Dumben berebiziko bidaiak'

Hainbat autore. C. Varela, M. Terrazos, T. Azkona (ilus.). Ibaizabal. 144 orr. 12 euro.



## Txaloak errepikatzen diren 'zirkuitoz'

“Nori edo zeri egiten diogu txalo? Artelane buruz ari garenean, adibidez? Zer txalotzen dugu? Artelana bera, hark eragin digun zirrara eta hunkidura, ala, ona, ezaguna, eskandalagarria eta modan dagoela esan diguten egilea bera? Zirkuitu berri eta ezezagunak txalotzen ditugu, ala zirkuitu-laburra eta itzal-aldia eragin diguten zirkuitu itxiak? Azken urteotan gero eta kezkaragarioa zaidan sentipena da, (...) nor bere burua nabarmendu behar du eta sortzen duen gutxia errepikatu, errepikatu daitezen txalook, zirkuitu itxian...”

## “Etorkizuna iragana baino handiagoa”

“200. zenbaki honen abiapuntuan 1977 dago. Orduantxe birjaio zen aldizkaria Francok inposaturiko isilaldi luze baten ondoren. (...) 200 zenbaki atzean, eta beste 200 aurrean: atzera begira barik aurrera begira jarrita gaude aspaldian, beti egon izan garen bezala, bestalde”. Hauexek 'Jakín' aldizkari zuzendari den Joan Mari Torrealdearen hitzak ale berriaren gainean. Zenbaki biribila aro berri bati etikete: diseinu eta atari eraberritua eta errelebu zuzendaritzan (maiatzerako aurreikusia).

## Giza Eskubideetan zehar bidaiak ederra

“Behin batean, munduko zientzialari garrantzitsuenek enkargu bereziki bat jaso zuten: tresna bat aurkitu behar zuten, gure mundu honetako biztanle guztiak zoriontsu izatea ahalbidetuko zuena...”. Maite Ruiz de Austriren 'Lucius Dumben berebiziko bidaiak' animazioko filmaren album ilustratua dugu hau. Beste autoreen artean, Rikardo Arregi, Juan Kruz Igerabide, Toti Martínez de Lezea eta Maite Ruiz de Austri bera aritu dira honetan.

## ZALDI EROA



Editorial Iparraguirre S.A.

Zuzendaria: Bingen Zupiria  
 Ardurak: Iñaki Mendizabal Elordi (mendideia.com)  
 Koordinazio lana: Amaia Santana (asantana@deia.com)  
 Diseinua: Jesús Santamaria  
 Maketazioa: Naroa Etxebarria  
 Zuzenketak: Iratxe Gaztañaga  
 Portada: Iratxe López de Munain  
 Lege Gordailua: BI 1720-06




Gehigarri honek Bizkaiko Foru Aldundian laguntza jasotzen du.


## IRATXE LÓPEZ DE MUNAIN

ILUSTRATZAILEA

# “Hizkuntza egokia erabiliz gero, gai guztiak landu daitezke haurrekin”

Iruñean, Bartzelonan, Madrilen, Txilen eta Argentinan aritu izan da **Iratxe Lopez de Munain** ilustrazio eskolak ematen. Izan ere, sorkuntza lanetik haragoko jardunak nahitaezkoak dira soldata osatzeko

 JON ANDER URKIAGA EGIDAZU

 “Ilustrazio batek ondo funtzionatzen duenean, inoiz ez luke testuak kontatzen duena errepikatu behar”, adierazten du ilustratzaile nafarrak. REBEKKA BRUGNER



**J**AIOTERRIA Euskal Herrian duen arren, bizitzak Bartzelonara eraman zuen Iratxe Lopez de Munain (Iruñea, 1985). Arte Ederretako ikasketak konderrian egin, eta ilustraziotik bizitzea lortu du nafarrak, inori begira egon beharrean, lanak bilatzeko ekimena bere gain harturik.

**Album Ilustratuen Lazarillo Saria 2013 irabazi berri duzu. Zer ikusi dute zure lanean?**

Pablo Alboren testua daraman lan hori saritzeko, bi ezaugarri hartu dituzte aintzat. Batetik, espazioa modu desberdin batean landu izana. Orriak eskuintetik ezkerreara igaro beharrean, ohikoa den bezala, behetik gora pasatu behar dira; bertikala da. Eta, bestetik, aurrez aurre jartzen dira zuriuneak eta koloredun irudiak. Gainera, irudiek euren artean duten segida ere aipatu dute: plano aldaketak, irudi batetik besterako saltoak. Saritu duten ipuinak, *La mujer más alta del mundo* lanak, neskato baten istorioa kontatzen du, oso txikia denez, eskolan beti marjinatzen duten ume baten istorioa. Hala-k batean gaixorik jarriko da, eta hurrengo egunean hazten hasiko da: hazi eta hazi... eta besteen ikusmena heltzen ez den tokietako gauzak ere ikusiko ditu. Norbere buruaren aurkikuntza lantzen du ipuinak, eta haur askok bizi duten baztertua eta diskriminazioa jorratzen ditu.

**Zergatik haurrentzako ilustrazioa?**

Uste dut ikertzeko eremu zabal bat dela. Oso irekia da, eta gai asko landu daitezke: eguneroko gaietatik hasi eta heriotza bezalako gai tabuetaraino.

Azken horien estiloko gaiak haurrei azaltzeko zailagoak badira ere, hizkuntza egokia erabiliz gero, arazorik gabe kontatu dakizkioke haurrari. Beraz, gaia aukeratzeko orduan arlo zabala da haurrentzako ilustrazioa.

**Testuarekin batera osatu zenuen lehenengo lana ‘Señor X’ izan zen. Zertan aldatu da zure emaitza ordutik hona?**

Urte batzuk igaro dira, eta harrezkero apur bat hobetu dudala pentsatu nahi dut. Lehen liburuan beti dago zalantza gehiago, esperimentazioak leku handiagoa du. Eta, orain, egia da esperimentatzen jarraitzen dudala, azken finean, ez daramadalako denbora luzeegirik ilustrazioaren alorrean, baina ziurtasun handiagoa lortu dut irudi batean zer kontaktatu nahi dudana erabakitze orduan.

**Zer bilatzen duzu zure lanetan?**

Normalean ez dut gauza zehatzik espero marrazten hasten naizenean. Irudiak niri zerbait esan diezadala nahi izaten dut. Adibidez, pertsonaia bat sortzen dut, eta segun eta nola irten den pertsonaia hori, horren arabera osatzen dut ilustrazioa. Ez dut ilustrazio itxirik nahi, irakurle bakoitzari bere irakurketa ahalbidetu nahi izaten diot. Zaila da, beraz, ilustrazio bat amaituta dagoela ohar-tzea. Askotan pasatu egiten zara, eta ilustrazioa bota egin behar duzu; baina, normalean, modu intuitiboagoan aurkitzen duzu amaiera. Bukatuta dagoela uste duzunean gelditu egiten zara, badakizulako zerbait gehiago jarriz gero, soberan izango duela irudiak. Margotzen duzuna irudiak behar



duelako margotu duzunean, ondo; dekoratze- rren margotu duzunean, aldiz, sobra duzu azken ukitu hori.

**Ez da gauza bera izango aurretiaz eman dizuten testu baten gainean lan egitea, edo huts-hutsetik abiatzea zure lana.**

Normalean, testu bat ematen didatenean, lehenengo eta behin, irakurri egiten dut. Gero testua albo batera utzi, eta irudiak sortzeari ekiten diot, irudiok zertarako izango diren pentsatu gabe. Prozesu horretan sortzen ditudan irudi gehienak alboratzekoak izaten dira, baina arrasto txiki batzuk ere aurkitzen ditut, eta arrasto horietatik bideratuko da liburua. Nire testuekin lan egiten dudanean, berriz, aldi berean lantzen ditut testua eta irudiak. Lan paralelo bat da.

**Zer eskaintzen dio ilustrazioak testuari?**

Ilustrazio batek ondo funtzionatzen duenean, inoiz ez luke testuak kontatzen duena errepikatu behar. Bigarren irakurketa bat eskaini behar dio testuari. Musikan, adibidez, abesti heavy baten eta abesti pop baten letrak ez dira berdinak izaten. Ilustrazioak zerikusi handia dauka irakurketari eman nahi diozun zentzuarekin. Ilustrazioak testuarekin zein testurik gabe funtzionatu beharko luke. Liburu batean, irudien segida bat denez, irudiak ikusita bakarrik irudikatu beharko zenuke zer gertatzen ari den. Eta irudia bakarrik dagoenean ere, irudi horrek funtzionatu beharko luke: konposizio on baten bidez edo koloreek irakurketa interesgarri bat ahalbidetuta, esaterako.

## Etorkizuna horizontean

**J**oan den hilean, Mexikon irten-go den haurrentzako ipuin batekin aritu izan da Iratxe Lopez de Munain. Bestetik, OQO argitaletxearekin ‘Hansel eta Gretel’ en bertsi batekin ere badihardu, eta testu errusiar batekin osatutako helduentzako liburu ilustratu bat ere badarabil esku artean. Eta hortik jarraitu nahiko luke, helduei zuzendutako ilustrazioekin: “Horrek erakartzen nau momentu honetan”.

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK ·

## ilustrazioa



“Normalean ez dut gauza zehatzik espero marrazten hasten naizenean. Irudiak niri zerbait esan diezadala nahi izaten dut”



### Nolakoa da ilustrazio baten sorkuntza prozesua?

Arkatzez egindako zirriborroekin hasten naiz, zuri-beltzean, eta gero sartzen ditut koloreak. Lanaren arabera aukeratzen ditut koloreak. Ondoren, behin betiko teknikarekin behin betiko paperera pasatzen dut zirriborroa. Pentsarako ilustrazioetan, adibidez, hedabideen eskariz material jakin bat erabili behar duzu, serigrafia edo tinta bakarra, esaterako, eta kasu horietan hasiera hasieratik jarduten dut behin betiko teknikarekin. Teknika diodanean, koloretako arkatzei eta tenperari buruz ari naiz, horiek direlako erabili ohi ditudanak.

### Teknika digitalik ez orduan?

Bai, batzuetan erabiltzen dut. Esate baterako, irudia serigrafian erreproduzitzeko bada, ordenagailua erabiltzen dut kolore horiek lortzeko. Horrelakoetan, normalean eskuz egiten ditut irudiak, eta gero pasatzen ditut digitalera. Baina, betiere prentsaren arloan aritu behar dudanean. Haurrentzako irudiak egiterakoan, koloretako arkatzak eta tenperak erabiltzen ditut beti. Hori da gehien gustatzen zaidan teknika. Tenpera eta koloretako arkatzen konbinazioa oso azkarra da, eta eroso egiten zait.

### Zure webgunearen bidez, ilustrazioak eta ilustrazioz atondutako libretak saltzen dituzu. Argitalleekin egiten duzun lana gutxitxo da ilustraziotik bizi ahal izateko?

Bai, liburuak argitaratzea ez da nahikoa. Liburu bat bukatzeko gutxieneko denbora hilabete da. Eta



liburuen truke ordaintzen dutena miseria bat da; gainera, badirudi gutxiagora doala, tratuan aritu nahi izaten dute zurekin, ea gutxiagorekin konformatzen zaren. Beraz, tailerren bidez eskolak emateak edo ilustrazioen salmentek aurrera egiten laguntzen dizute.

### Sorkuntza lanaz gainera, irakatsi ere egiten duzu, beraz.

Bai, ilustrazio tailerrak eskaintzen ditut, Betania Zacarias ilustratzailearekin batera. Ilustratzailearen lana nahiko bakartia da, zure estudioan eta zure marrazkiekin orduak igarotzen dituzu, eta bezeroren batekin egon behar ez baduzu, ez daukazu harreman handirik egunerokoan. Tailerrekin horregatik hasi ginen, eta, ondo pasatzeaz gainera, soldata osatzen laguntzen digu. Nagusiei zuzendutako tailerrak dira, ilustratzen hasi den jendeari, edo interesa eduki, eta sekula ezer sortu ez duenari zuzendutakoak.

### Azken aldian ilustrazioak indarra hartu duela iruditzen zait.

Bai, urte gutxiren buruan *boom* izugarria egon da ilustrazioaren munduan. Orain 20 urte ilustratzaileek zuten kompetentzia askoz txikiagoa zen. Bai Euskal Herrian, bai Espainiako estatuan lau ziren ilustrazioak egiten jarduten zirenak. Orain, esaterako, ilustrazio eskola gehiago daude, eta eskuz egindako gauzei arreta handiagoa jartzen zaie. Artilearekin egindako puntua, zermika... artisautza langintza horiek guztiak badirudi indarra hartzen ari direla.



Koloretako arkatzak eta tenperak gustuko ditu margotzeko. IRATXE LÓPEZ DE MUNAIN





## IDURRE ALONSO ARTE KOMISARIOA

ANDER EGILUZ BERAMENDI

# “Ez genuke artearen gozamen estetiko hutsa alderatu behar”



Los Angelesera (AEB) joan zen bizitzera **Idurre Alonso** 2001ean. Urte hartan, bost puntuko lurrikara bizi izan zuen, Dorre Bikien atentatua eta Antraxez kutsatutako gutunen atakea. Uste baino txundigarriagoa da arte komisarioen bizitza...

**E**LKARRIZKETA irakurrita, heziketa-ekin obsesionatua dagoela pentsa lezake norbaitek. Orain hilabete ama izan delako izan daiteke hori: erakusketa estreinatuta berri du. Bo, Mikel deitu duen mutil koxkorra munduratu du ere bai.

**Erabat instalatua zaude Los Angelesen. Zerk du garrantzia handiagoa erabaki horretan: lanak, bikoiteak ala semeen jaiolekua izateak?**

Une honetan, bikoteak eta lanak. Oso gazteak dira haurrak oraindik, oso mugitzen errazak, kar, kar!

**Bo, Mikel semea 'estreinatzeaz' aparte, erakusketa ere aurkeztu duzu otsailean. Poztasun maila bera?**

Bai, antzekoa, kar, kar! Nahiz eta, benetan, badauden erditzea bezalakoak diren erakusketak...

**Zer esker txarrekoa komisarioaren lana: norik izendatuko luke ezaguna den bat?**

Benetan baietz! Lan ederra da, egia esan. Artistekin eta sortzaileekin elkarlanean asko ikasten da.

**Eta zeure kasuan zer esanik ez: Estatu Batuetan eta artista mexikarrekin, gehienbat, horrek Ameriketara duen esanahiarekin.**

Sortzaileekin lan egitea oso aberasgarria da, ideia berriak erakusten dizkizutelako beti. Ezbaian jarritzen dute artistek mundua, baina ez politikoki soilik, estetikoki ere. Arteak beti erakusten baitu munduaren bestelako ikuspegi bat.

**Arazoien bat behar zuen egon Artearen Historia ikasi izateko...**

Aberats izateko ez zen izan, ez, kar, kar!

**Zer gutxitan entzuten den artearen alde estetiko 'hutsari' gorazarrea.**

Ba ez genuke artearen gozamen estetiko hutsa alderatu behar.

**Zertan laguntzen digu arteak?**

Begiak zabaltzen. Arteak oso modu desberdinean eragin zaitzake: politikoki zein estetikoki. Badaude obrak ederrak iruditzen zaizkizula eta kito, ez dago besterik. Politikak dira eta kito.

**Los Angelesen, biztanleriaren erdia latinoa da.**

Erdia baino gehiago! Hala ere, geure museoko bazkideen erdia, gutxienez, angloa da.

**Horratx paradoxak!**

Alde elitista du arteak, oraindik ere. Zeinek erosten du artea? Nor doa museotara Ameriketara? Kultura maila batetik gorakoen kontua baino ez dela ematen du.

**Horretarako zaudete zuek.**

Gizarte maila ahulenekoek ulertuko ez dutela uste dute eta mito hori apurtzea da museoaren zereginetako bat. Horretarako dugu Hezkuntza Departamendua, hezkuntza da giltza. Artea zenbat eta gehiago zokoratu orduan eta jende gehiagok galduko du.

**Arazo berdina du Europak?**

Europar gizarte mailen aldeko alde ez da hain nabaria, baina ezingo nuke askoz gehiago esan. Mexikon gertatzen dena, oster, oso deigarria da. Edozein igandetan edozein museora hurbiltzen denak jendez lepo ikusiko du, maila sozial guztie-



“Badaude erditzea bezalakoak diren erakusketak”, dio Alonsok txantxetan.

ANDER EGILUZ BERAMENDI

tako jendez beteta gainera. Heziketa kontua da, txikitatik jaso dute hori.

**Estatubatuarrak ez doaz museotara igandetan?**

Kar, kar! Jaiegun bat aipatzearen esan dut igandea, baina bai, badauz museotara. Halere artearen garrantzia ez dute hain barneratua. Hezkuntza sistema, pixkanaka, artea alde batera uzten joan da eta umeek ez daukate artearekin harremanik.

**Orduan?**

Museoak hartzen du bere gain gobernuak egin beharko lukeen lan hori. Autobusak bidaltzen ditugu guk eskoletara umeak hona ekarri eta bueltan eramateko.

**Zer ikasi lezake Euskal Herriak Mexiko eta Estatu Batuegandik?**

Arteak, hezkuntza, presentzia handiagoa behar duela uste dut. Interesgarria litzateke artistak eskolara eramatea, haurrek harreman zuzena izan dezaten sortzaileekin. Oinarrizkoa da hezkuntza. Artearekiko interesa piztu beharrean gaude.

**Egon badaude, behintzat, izen handiko museoak Euskal Herrian.**

Har dezagun, adibidez, Gasteizko Artium museoa. Estatu mailan, Espainiako arte garaikideko bilduma onena du, Reina Sofiaren atzetik, eta horra ez doa inor! Zerbait gabiltza txarto egiten.

**Hezkuntza?**

Hezkuntza da giltza, bai.

artez  
euskara zerbitzua



itzulpenak • hizkuntza aholkularitza • papergintza



www.artez.net  
posta@artez.net  
944 480 000